

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur egun, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio, gazteek, helduarora igarotzerako bidean zein unibertsitate gradu aukeratuko duten erabakitzeke ematen den orientazioari. Orientazioa, mota askotarikoa izan arren, ez da eraginkorra izaten. Test batek esaten dizuna garrantzitsua izan daiteke, eta baita unibertsitateek antolatzen dituzten hitzaldiek azaltzen dutena ere, baina hori guztia teoria hutsa da, oso abstraktua, eta gazteek zer bait falta zaiela sentitzen dute. Probatzea, bizitzea, ezagutzea, teoria hori praktikara eramatea benetako aukeraketa bat egin baino lehen.

Honen faltan, ikasle askok gradua hasi eta galduta sentitzen dira, ez dute espero zutena aurkitzen, berez ez dutelako ideia argirik hasi baino lehen. Aurretik gai bat probatu ezean, urte osoan gustoko ez duzun gradu bat egin behar izatea etsigarria eta denbora galtzea izan daiteke. Hori ekiditzea garrantzitsua da.

Nola dakizu zuzenbidea gustatzen zaizula, ez baduzu inoiz probatu, ez bazara inoiz klase batera joan? Nola jakin psikologiaren gaiari buruz lantzen dena interesatzen zaizula?

AUKERAKETA BIZIren eskutik, gazteek erabakia hartzeko edo hartzen laguntzeko sistema berritzaile bat proposatzen da:

-Berrikuntza: egia da gaur egun nerabeak gidatzen dituzten hainbat programa eta ekintza existitzen direla. Hala ere, hauek ikasleek graduak nolakoak diren azaltzeko eta unibertsitateetako prozedurak eta antolaketak ezagutzeko izaten dira. Gainera, ate irekietan askotan gelak eta materiak erakusten dira, unibertsitateen baliabideak. Gure taldeak benetan gaiari buruzko azalpenak entzutearen eta ikasgaiekiko benetako jakinmina piztearen beharra ikusi dugu. Errealitateko klaseetara joatea, ikasle zein irakasleekin ikasgaiei buruz hitz egitea eta hasi aurretik ahal den heinean “sakontzea” eskaintzen dugu, hori ez da lehenago egin.



-Pertsonalizazioa: gure proposamena oso pertsonalizagarria da, izan ere, parte hartzen dutenek haiek nahi duten graduak klaseetara joatea aukeratzen dute, eta gero guk antolaketan, aukeraketa berdina egin dutenak elkartzen ditugu.

-Eskuragarritasuna: eskolaz eskola joaten gara ikasleei gure zerbitzuak eskuragarri jartzeko eta bilerak egiten ditugu gurasoak ere agertu ahal izateko. Gainera, prezioa zerbitzuari egokitua da eta aukera ezinhobea izatea eragiten du.